

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

MUSIKARI BERE ESPAZIOA EMATEN.
HAUR HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLORAKO
“MUSIKAREN TXOKOA”
PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Ruiz de Azua Marroquin, Ane.

ZUZENDARIA: Lekue Rodriguez, Pablo.

2022

Laburpena

Gradu Amaierako Lan honetan, Haur Hezkuntzako lehenengo ziklorako programazio didaktiko baten diseinu eta implementazioa aurkezten ditugu, musika-hezkuntzak 0-3 etapan duen garrantzia eta umeen garapenean dituen onurak aintzat hartzen baititugu. Programazio didaktikoan, ikasturte osoko musikarako txoko bat diseinatu dugu, haurrek musikari buruzko oinarritzko kontzeptuak lantzeko helburuarekin eta, horretarako, gaitasun, eduki, zergin eta ebaluazioa planifikatu ditugu. Programazioaren atal bat Haur Hezkuntzako ikasgela batean aplikatu ahal izan dugu eta emaitzak nahiko onak izan dira. Haurrak gustura ibili dira burutu dugun esku-hartzean zehar, oro har, erantzuna oso ona izanda eta garapena ikusi dugu hasieratik bukaera arte. Emaitzak eskuratzeko ebaluazio tresna ezberdinak erabili ditugu eta batez ere, haurrek izan duten prozesuan jarri dugu ikuspuntua. Ondorio moduan esan dezakegu, haurrek planteatutako helburuak eta gaitasunak maila nahiko altu batean lortu dituztela, nahiz eta haurrak maila ezberdinetan izan.

Gako-hitzak: Musikaren txokoa, musika, Haur Hezkuntza, Lehenengo zikloa, programazio didaktikoa, musika-hezkuntza.

Resumen

En este Trabajo Fin de Grado presentamos el diseño y la implementación de una programación didáctica para el primer ciclo de Educación Infantil, teniendo en cuenta la importancia de la música en la etapa 0-3 y sus beneficios en el desarrollo de los niños. En la programación didáctica hemos diseñado un rincón de la música durante todo el curso, con el objetivo de que los niños y niñas trabajen los conceptos básicos de la música, planificando sus capacidades, contenidos y evaluación. Hemos podido aplicar parte de la programación a un aula de Educación Infantil y los resultados han sido bastante satisfactorios. Los niños y niñas han estado satisfechos con la intervención que hemos realizado, en general, con una respuesta muy buena y hemos visto el desarrollo desde el principio hasta el final. Para obtener los resultados hemos utilizado diferentes instrumentos de evaluación y hemos puesto el punto de vista sobre todo en el proceso que han tenido los niños y niñas. Como conclusión podemos decir que los niños y niñas han alcanzado los objetivos y las competencias planteadas en un nivel relativamente alto, a pesar de que ellos y ellas estén en distintos niveles.

Palabras clave: rincón de la música, música, Educación Infantil, Primer ciclo, programación didáctica, educación musical.

Summary

In this Final Degree Project, we present the design and implementation of an educational program for the first cycle of Early Childhood Education, taking into account the importance of music in the 0-3 stage and its benefits in the development of children. In the educational program we have designed a music corner for the whole course, with the objective of having the children work on the basic concepts of music, planning their abilities, contents and evaluation. We have been able to put into practice part of the program in a kindergarten classroom and the results have been quite satisfactory. The children have been satisfied with the intervention we have carried out, in general, with a very good response and we have seen the development from the beginning to the end. To obtain the results we have used different evaluation instruments and we have put the point of view mainly on the process that the children have had. In conclusion, we can say that the children have reached the objectives and competences set at a relatively high level, despite the fact that they are at different levels.

Key words: music corner, music, Early Childhood Education, first cycle, educational program, music education.

AURKIBIDEA

Sarrera	4
I. Marko teorikoa	6
1. Musikaren definizioa, funtzioak eta garrantzia	6
2. Musika eta haurren garapena zero eta sei urteren artean	7
3. Musika-Hezkuntzarako ildo teoriko nagusiak eta marko legala	8
3.1. Musika-hezkuntzarako egungo ildo teoriko nagusiak.	8
3.2. Musika-hezkuntzarako Espainiako eta EAeko marko legala.	8
4. Txokoen metodologia: espazioak, txoko motak, denborak, irakaslearen papera eta ebaluazioa	9
4.1. Espazioen antolakuntza.	10
4.2. Txoko motak.	11
4.3. Txokoetako denboraren antolakuntza.	12
4.4. Irakaslearen papera.	12
4.5. Txokoetako ebaluazioa.	13
5. Musikaren txokoa	13
II. Haur Hezkuntzako Musika-hezkuntzarako programazio didaktikoa	15
1. Haur Hezkuntzako Musika-hezkuntzarako programazioaren justifikazioa	15
1.1. Ikastetxearen ezaugarriak.	16
1.2. Ikastaldearen ezaugarriak.	17
2. Programazio didaktikoaren helburu orokorra, helburu espezifikokoak eta gaitasunak	18
3. Programazioaren edukiak	18
4. Programazio didaktikoaren zereginak	19
4.1. Zereginen antolaketa.	20
4.2. Programazio didaktikoaren baliabideak.	27
5. Programazioaren Ebaluazioa	30
5.1. Ebaluazio Irizpideak.	30
5.2. Ebaluazio Adierazleak.	30
5.3. Ebaluaziorako tresnak.	31
6. Esku-hartzearen emaitzak	32
7. Esku-hartzearen emaitzen eztabaida	34
8. Ondorioak	36
9. Mugak eta hobekuntza proposamenak	37
Erreferentziak	40
Eranskinak	42

Sarrera

Gradu Amaierako Lan honetan Haur Hezkuntzan lehenengo zikloan musika lantzeko musikaren txokoa egiteko proiektu bat sortu dugu baita haurrek bertan eskuratu beharreko gaitasunak, edukiak, zereginak eta ebaluazio sistema ere.

Hasteko, gaiaren garrantzia azpimarratuko dugu eta adituen eta ikerketetan oinarrituz, musika kontzeptuaren esanahia azalduko dugu. Horretarako, musika-hezkuntzak duen garrantzia 0-6 etapan eta haurren garapenari ekartzen dizkion onurak aztertuko ditugu. Horrez gain, txokoen metodologia eta musikaren txokoari buruzko aurrekari teoriko eta praktikoak aztertuko ditugu.

Bigarrenik, gure proiektuari helduko diogu, programazio didaktikoaren justifikazioa azalduko dugu, eta zergatik eta nondik abiatu garen programazio didaktikoa sortzerakoan. Jarraian, programazioa non eta zein adinetan burutuko dugun azalduko dugu, lehenengo ziklora bideratutako programazio didaktikoa baita.

Hirugarrenik, programazioaren nondik norakoa azalduko dugu, hots, zertan datzan programazioa, lortu nahi diren helburuak eta edukiak eta egingo diren zeregin guztiak azalduta. Horrez gain, programazioaren ebaluazioa azalduko dugu, hiru ataletan banatuta, ebaluazio irizpideak, ebaluazio adierazleak eta ebaluazio tresnak.

Laugarrenik, lortutako emaitzak aztertuko ditugu eta kontuan hartuko dugu ez dugula programazio osoa burutzerik izan. Beraz, burutu dugun esku-hartzearen emaitzak azaldu eta aztertuko ditugu, lortu ditugun ebidentzien bidez. Lortutako emaitzekin atera ditugun ondorioak azalduko dira.

Azkenik, esku-hartzea zein programazio didaktikoa sortu eta burutzerakoan izan ditugun mugak adieraziko ditugu eta muga horiek izan ditzaketen konponbideak. Halaber, hobekuntza proposamenak egongo dira etorkizunera begira eta musikarekin lotutako beste proiektu edo material didaktikoei begira.

I. Marko teorikoa

1. Musikaren definizioa, funtzioak eta garrantzia

Musika entzutea jendeak pentsatzen duena baino garrantzia handiagoa du arlo guztietan, bai hezkuntza arloan, bai bizitzaren edozein arlotan ere. Pascualen ustez (2006), musika definitzea, gaur egun duen konplexutasunagatik nahiko arriskutsua da eta hainbat datu aipatzen ditu. Musika hitzak, "musike" hitza greziarretik dator eta latineko hitzetik "musa". Musikaren esanahia aldatu da urteetan zehar, lehen zabalagoa baitzen, poesia, dantza eta norberak musika moduan ulertzen zuena kontuan hartzen zelako. Pascualen esanetan, musika arte bat da, soinuak denboran konbinatzearen artea, hain zuzen ere.

Musikaren garrantziari buruz autore askok idatzi dute, musika guztion egunerokotasunean presente baitago. Musika eta soinuak funtsezko elementuak dira mundua ezagutzeko eta harekin harremanetan jartzeko, entzumenaren pertzepzioa garatzeko, komunikatzeko eta sozializatzeko, irudimena erabiltzeko eta sormena garatzeko, hitzekin esan ezin dena adierazteko eta, halaber, gozamen, entretenimendu eta plazeraren iturri agorrezina izan dadin. (Akoschky, Alsina, Díaz eta Giráldez, 2008).

Froebel, Decroly, Montessori edo Agazzi ahizpek, beste hainbat adituren artean, musika-hezkuntza oso garrantzitsua dela eta ahalik eta lehen irakatsi behar dela diote. (Pascual, 2006). Hezkuntza musikala haurra jaio aurretik hasi behar da, entzumenezko aparatua jaio aurretik funtzionatzen hasten delako. Ikerketa batzuek diote (Fridman, 1988; Woodward, 1992), jaio aurreko memoriak lehentasunak dituela amaren umetokian entzun dituen soinuei dagokienez. Ildo beretik, musika-hezkuntza goiztiarrak onura izugarriak ekartzen dizkio adimenaren garapenari eta umeen bizitzan zehar hainbat trebetasun eta gaitasunen garapenena funtzezkoa da musika, hala nola, koordinaziorako, sentsibilitaterako, talde-lanerako, ahalmenerako eta kontzentraziorako. (Akoschky, Alsina, Díaz eta Giráldez, 2008).

Lizasok dio (2017), hezkuntza integral bat egiten denean ezin dela hezkuntza musikala alde batera utzi, bere formazioa hainbat arlotan laguntzen baitu, hala nola, gaitasun kognitiboen eta psikomotorren garapenean, baita gaitasun afektibo eta sozialen garapenean ere. Musikaren ikaskuntzan askotariko prozesu kognitiboak ematen dira: arreta eta motibazioa, irudikapen sistemak eta memoria, sentsazioak eta pertzepzioak, eta adimen musikala eta elkarrekintzak.

Musikak ekartzen dituen onurei eta ekarpenei dagokienez, maila ezberdinak daude, Pérez Villalbaren arabera (2020); maila intelektualean, musikak oroimena estimulatzen du; zenbait zeregin edo errutina nola egin gogoratzen laguntzen du eta sormena eta irudimena sustatzen ditu, maila sozialean, musikak pertsonen arteko harremanak bultzatzen ditu, sentimenduak batera adierazten laguntzen du eta azkenik, maila psikologikoan, musikak emozioekin lotura estua du eta nerbio-sistema zentralean eragiten du.

Bernalen aburuz (2005), musika-giro aberats batean garatzen diren haurrek, musika egiteko gaitasuna eta sormena dituzte eta musika egiten dute, nahiz eta ez erakutsi zuzenean.

Haur txikiek musika egiteko gaitasuna beren jokoen bidez eta mugimenduko jardueren bidez aurkezten dute, hala nola, modu espontaneo batean abestuz edo musika-tresnek sortzen dituzten soinu ezberdinak antolatuz, esplorazioaren bidez.

2. Musika eta haurren garapena zero eta sei urteren artean

Haurren garapena prozesu luzea eta konplexua da eta kontuan hartu behar dugu ume bakoitzaren prozesua ezberdina dela eta bakoitzaren erritmoa ez dela zertan berdina izan. Jarraian, haurren garapen prozesua musikari dagokionez eta zero urtetik sei urtera azalduko dugu, hainbat autoreri erreparatuz.

Jaiotzetik lau hilabetera arte, jaioberria hizkuntza berbala kantu hizkuntzatik eta beste soinuetatik ezberdintzen hasten da; soinuak igortzen hasten da melodiarik gabe, eta soinu horiek deiak egiteko erabiliko ditu, batez ere. (Akoschky, Alsina, Díaz eta Giráldez, 2008).

Zortzi eta hamazortzi hilabeteren artean, umea gauzak nahita egiten hasten da, adimenaren garapena ematen da eta memoriak eta nahiak agerian jartzen ditu. Pascualen aburuz (2006), zortzi hilabeterekin umeak eserita denbora gehiago ematen du eta, horrekin batera, musikak eragiten dizkion sentimenduak adierazten hasten da saltoak emanez edota besoak mugituz. Koordinazioa garatzen du eta objektuak lurrera botatzen hasten da erortzean haien soinua entzuteko. Hamabi eta hamazortzi hilabeteren artean, hitzak eta erritmoak imitatzen hasiko da, antolakuntza erritmikorik gabe.

Bi urterekin, umeak hitz egiten hasten direla eta behin eta berriro errepikatzen abestiak edota elkarrizketak; abestea, kolpekatzea eta mugitzea dira ariketa ohikoenak. Gainera, instrumentu musikal batzuk deigarri iruditzen zaizkie, hala nola, panderoa, triangelua eta kanpai metalikoa (Pascual, 2006). Koordinazioa garatzen doa, oraindik

hobeto koordinatzen ditu besoak oinak baino, eta horregatik txaloen bidez erritmoa jarraitzeko gai da. (Akoschky, Alsina, Díaz eta Giráldez, 2008).

Hiru eta bost urteren artean, kuriositatearen gehikuntza ematen da, umea gai baita abestiak abesteko eta abesti, dantza edo instrumentu berriak sortzeko. Mugimenduaren garapena hobetzen joan da eta motrizitate fina garatzen hasten da. (Akoschky, Alsina, Díaz eta Giráldez, 2008). Imitazioaren bitartez erritmo sinpleak erreproduzitzeko gai da eta alturen erregistroa diskrimina dezake. (Lizaso, 2017).

3. Musika-Hezkuntzarako ildo teoriko nagusiak eta marko legala

3.1. Musika-hezkuntzarako egungo ildo teoriko nagusiak.

Gutiérrezek dio (2010), gaur egungo musikaren ikaskuntza eta irakaskuntzarako korrante pedagogikoak, ondoko autoreek ordezkatzeko dituztela: Dalcroze, Orff, Kodaly, Ward, eta Willems. Autore horien metodoen ildo nagusiak hiru ideietan laburbiltzen ditu Gutiérrezek. Lehenengoa, musika-elementu sinpleenetatik abiatzea, hau da, hezkuntza erritmikotik eta hezkuntza sentsoaletik; bigarrena, ikasleei ez zaie inoiz inposatu behar berentzat zentzurik ez duen teknika baten zurruntasuna, baizik eta haur bakoitzarengan piztea soinuaren, erritmoaren, musika interpretazioaren eta musika lanaren bizipenaren zentzua. Hirugarrena eta azkena, musika-hezkuntzaren ebaluazioa ikaskuntza eta irakaskuntzaren prozesuan integratzea. Korrante pedagogiko horien abiapuntuko ideia nagusia da musika haurren errealitatearen parte bat dela. Korrante pedagogikoak ezberdinak izan arren, musikari buruzko ideia komun batzuk dituzte, hala nola, lehenengoa, haurrak zeregin aktiboa du hezkuntzan, estimuluak hauteman, ulertu, eraldatu eta adierazteko gai baita. Bigarrena, musikak irudimena garatzen du eta sormen-adierazpenak ahalbidetzen ditu. Hirugarrena, musika jolasaren bidez irakatsi behar da, hori baita giza-garapenaren oinarria. Laugarrena, musika-hezkuntza bi alderditan hartu behar da kontuan: helburu gisa, musika-jarduera profesional bati begira; eta bitarteko gisa, haurren garapen integralari laguntzeko. Bosgarrena eta azkena, musika-hezkuntzaren askotariko korranteak musika-praktikaren antzera egituratzen dira. (Gutiérrez, 2010)

3.2. Musika-hezkuntzarako Espainiako eta EAeko marko legala.

SEM-EE elkarteak (*Sociedad para la Educación Musical del Estado Español* delakoa) txosten bat egin zuen 2017an, gaur egungo hezkuntza musikaren egoerari buruz. Bertan adierazten du estatu espainiarrean urte batzuetatik hona, musika jasaten ari dela izugarritzko hondamendia, hezkuntza-kalitateari eta pertsonaren prestakuntza integralari dagokienez. Instituzioek ezarritako murrizketa ekonomikoek hezkuntza-kalitateari eraso egin diotela

adierazi behar dugu (Carrasco, 2017), eta aurretik eraman dute Hezkuntzaren funtsezko zutabeetako bat, Musika alegia. Gainera, musikak garrantzia handia galdu duela bai hezkuntza formalean, bai ez formalean azaltzen du txostenak. Atzera begiratzen badugu, 1990ko LOGSE legeak, lehenengo aldiz musika nahitaezko irakasgai jarri zuen Oinarrizko Hezkuntzako etapa guztietan, hau da, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

LOMCE legeak (MEC, 2013), hiru motako irakasgai ezarri zituen, hots, tronkalak, espezifikokoak eta izendapen librekoak, musika izendapen libreko atalean sartuz. Izendapen libreko atal horretan, autonomia erkidegoen eskuetan geratu zen antolakuntza, eta ondorioz ezberdintasun handiak sortzen dira autonomia erkidegoen artean.

Euskal Autonomia Erkidegoko gaur egungo Haur Hezkuntzako curriculumean (Heziberri, 2016), haurren garapenerako bi eremu ezartzen dituzte. Bigarren eremuan, Musika dago beste hainbat arloekin batera, hala nola, Plastika eta Heziketa Fisikoa. EAEko curriculumean, bakarrik helburu orokor batean agertzen da musikaren aipamena. Horrez gain, eduki espezifikoen artean, lehenengo zikloan, musikari erreferentzia egiten dioten hiru eduki agertzen dira. (Heziberri, 2016).

Musika-hezkuntzak, Haur Hezkuntzari dagokionez, gaur egun EAEn honako ezarpen hau dauka: bigarren zikloan, lau eta bost urteko geletan, batez ere, musika irakasgaia lantzen da astean behin. Bi eta hiru urteko geletan, ez dago musikaren presentzia era konkretu batean, hots, musika erabiltzen da beste helburu edo gaitasun lortzeko tresna gisa, baina ez zaio garrantzirik ematen. (MECD, 2022)

4. Txokoen metodologia: espazioak, txoko motak, denborak, irakaslearen papera eta ebaluazioa

Ikasgela lan-txokoka antolatzea estrategia pedagogiko bat da eta estrategia horren helburua da haurrak parte hartze aktibo batekin, beren ezagutzak eraikitzen joatea, aukeratzeko askatasunean, aurkikuntzan eta ikerketan oinarrituz. Estrategia horrek haur bakoitzaren erritmoak eta ikasteko maila ezberdinak bultzatzeko aukera ematen du. Horrez gain, lan autonomoa, laguntza indibiduala eta berdinen arteko lankidetzaren garapena bultzatzen dituzte lan-txokoek. (Rodríguez, 2011) Txoko bakoitzaren edukiari dagokionez, txokoek bereizita egon behar dute eta, horretarako, Laguía eta Vidal-ek (2008) materialei buruzko proposamen bat egin zuten. Txokoetan beharrezko materiala egon behar da, ez gehiago umeak aztoratzen direlako eta ez gutxiago umeek beren burua mugatzen dutelako;

materialak umeen eskura egon behar dira baina hark ez du esan nahi material guztiak beti beraien eskura egon behar direnik, material batzuk baizik. Materialaren erabilpena eta haurren autonomia bultzatu behar da, horretarako oso gomendagarria da materialak kutxetan edo saskietan gordetzea eta irudiak edo piktogramak jartzea kutxa edo saski bakoitzean. Txokoetan dagoen materiala mantendu eta hondatuta dagoenean aldatzea, azkenik, erabiltzen diren materialak atseginak eta ikusgarriak izatea baina beti segurtasuna bermatuz. (Laguía eta Vidal, 2008)

Txokoen metodologia lantzen dituen konpetentzia orokorreari erreparatuz, Javier Rodriguez autoreak dio (2011) ondoko konpetentziak lantzen direla: hasteko, ikasten ikasi. Izan ere, txokoetan edukiak egoera desberdinetan aplikatu daitezke, ikasleei planteatzen zaizkien egoerak ebazteko prozesuez jabetzen laguntzen dute eta nork bere kabuz eta noiz laguntza eskatzeko gai diren bereizten dute. Bigarrenik, autonomia eta ekimen pertsonala, txoko bakoitzean autonomoki mugitzen dira eta beraien erabakiak hartzen dituzte. Hirugarrenik, txokoen metodologiak emozionalki, norberaren emozioak ezagutu eta kontrolatzen laguntzen du eta pertsonen arteko harremanetan enpatia bizitzen. Azkenik, sozialki, eskolan eskubideak eta betebeharrak erabiltzea, errealitate soziala ezagutu eta interpretatzea eta balio demokratikoak praktikan jartzea sustatzen da.

4.1. Espazioen antolakuntza.

Txokoen antolakuntzari erreparatuz, Ana Isabel Fernández-ek (2009) dio kontuan hartu behar direla alderdi asko. Hasteko, ikasgela txokoka antolatzean kontuan hartu behar dira talde txikietan jarduera ezberdinak aldi berean egiteko aukera egon behar dela. Horrez gain, txoko bakoitzak ikasturtean zehar landu behar denarekin bat etorri behar da. Ez dago zehaztuta zenbat txoko egon behar diren ikasgela batean, irakasle bakoitzak edo eskola bakoitzak erabakiko du. Txokoen kopurua erabakitzeko kontuan har daiteke hezkuntza-helburuak, ume kopurua, espazioa, materiala edo irakasleak txoko bakoitzean esku hartzeko duen beharra.

De Pablo eta Trueba autoreek diote (1994:114), ikasgelan jartzen diren txokoak garrantzia handia dutela umearen garapenean, txokoetan emango direlako hainbat egoera, hala nola, aurkikuntza egoerak, jolasak, besteekiko topaketak... Horrez gain, oso gomendagarria da txokoak ondo banatzea, umeek argi izan ditzaten txoko bakoitzaren espazioa eta bere mugak eta horrela laguntzen zaio umearen erabaki autonomoari jolasekin eta jarduerekin.

4.2. Txoko motak.

Ikasgelan jartzen den txoko bakoitzak arrazoi bat izan behar duela diote Laguía eta Vidal autoreek (2008) eta arrazoi horiek eskolak dituen ikasturteko beharren arabera edo umeen beharren arabera dira (1 taula).

1 Taula. Haur Hezkuntzarako txokoen ezaugarriak. Iturria: Egileak egina, Laguía eta Vidal (2008) autoreen arabera.

TXOKO MOTA	MATERIALA	OHARRA
Jolas sinbolikoa	Sukaldea, panpinak, mozorroak, dendak, janaria...	Rol jolasak bultzatzen dira, ingurunea ulertzen eta asimilatzen laguntzen du, sormena lantzen da...
Plastika adierazpena	Margoak, plastilina, klarionak, errotuladoreak, tenperak...	Manipulaziorako materialak eskaintzen dira beraien kreazioak sortzeko eta interpretatzeko...
Hizkuntza adierazpena	Piktogramak, letrak, arbela, liburuak...	Irakurketa eta idazketa bultzatzen da, lehen kontaktuak izateko, beraien nahietan oinarrituta...
Eraikuntza eta logiko-matematika	Legoak, egurrak, animaliak, kotxeak, trenak, puzzleak...	Askotariko estrukturak sortzeko, bai pentsamendu aldetik bai hizkuntza aldetik.
Psikomotrizitatea	Koltxonetak, estrukturak, espazio librea...	Bakoitzaren gorputza ezagutzeko eta kontrolatzeko, objektuak ezagutzeko, gorputzaren kontrola...
Behaketa eta esperimendazioa	Material sentsorialak, landareak, animaliak...	Esploratzeko gogoak pizteko, erantzunak sortzen ikasteko, kontzentrazioa landu...
Haretokia	Harea, poteak, koilarak, iragazkiak...	Ontzi-aldatzeak egiteko beharra asetzen du, batez ere bi eta hiru urteko geletan.

TXOKO MOTA	MATERIALA	OHARRA
Lasaitasuna	Sofa, koltxoiak, kuxinak, mantak, liburuak	Eroso eta seguru egoteko aukera, lasaitasuna bermatzen du...
Musika	Musika-tresnak, abestiak, puzzleak, mikrofonoak...	Askotariko gaitasunak eskuratzeko aukera, era dibertigarri baten bidez.

4.3. Txokoetako denboraren antolakuntza.

Txokoen antolakuntza eta aukeraketa oso garrantzitsuak dira, baita denboraren antolaketa eta txokoen arauak taldearekin adostea ere. Txokoetan egoteak ume kopuru mugatu bat laguntzen du, horrela txoko guztiak erabiltzen dira eta ez dira ume asko pilatzen leku berdinean, irakasleak kontuan izan behar du txoko bakoitzean egon behar diren umeak, materialaren arabera adibidez; eta ez dira zertan izan ume kopuru berdina txoko guztietan. Txokoetan egon daitezkeen denborari dagokionez, Laguía eta Vidalek (2008) esaten dute ezin dela denbora zehatz bat jarri, haur bakoitzak bere jolasteko erritmoa izango du eta denborak jartzea garapena mugatzea izango litzateke.

Ikastaldearen ezaugarrien eta adinaren arabera eta umeak txokoetan antolatzeko, dominen metodoa erabiltzen da askotan. Txoko bakoitzak domina kopuru bat dauka eta hurrek txokoetan jolasteko domina eskegita izan behar dute, dominak bukatzen direnean umeek beste txoko batera joan behar dute txoko hori libre geratu arte. Beste leku batzuetan taulak piktogramekin egiten dituzte eta umeak markatu behar du zer txokotan egongo den, kopuruak kontrolatzeko.

4.4. Irakaslearen papera.

Txokoen metodologian, irakasleak adimena ireki behar du eta umei beren ikaskuntza-irakaskuntza prozesua bakarrik osatzea utzi behar zaie. Metodologia horretan, haurrak konfiantza izan behar du eta autonomoki jolasten eta esploratzen ibiltzen utzi behar zaio.

Laguía eta Vidalek (2008) diote irakasleak aurre hartu behar diela sor daitezkeen edota dauden behar eta baldintzei. Txokoak ez dira jolas librerako lekuak patioak diren bezalakoak, baizik eta aurreko prestakuntza eta antolakuntza behar dute, ikaskuntzarako helburuak eta konpetentziak lortzeko eta umearen garapena sustatzeko. Beraz, txokoak

planifikatzean eta sortzean, irakasleak ikasleen espazio- eta denbora-egituraketa egiteaz gain, kontuan hartuko ditu haur batzuek dituzten beharrak. Behin txokoak sortu ondoren, irakasleak izango da arduraduna motibazioa sustatzeko, hau da, haurrek motibatu behar ditu txokoetara jolasteko gogoak izan ditzaten. Gainera, irakaslea haurren bidelaguna izan behar da, adi egon behar da sortzen diren gatazkak eta arazoak konpontzeko eta haurrek behar dutenean laguntza eskaini behar die. Umeak autonomoki ibili behar dira txokoetatik baina irakasleak behaketaren bitartez presente egon behar da denbora guztian.

4.5. Txokoetako ebaluazioa.

Ikaskuntza prozesu guztiak bezala, beharrezkoa da ebaluazio bat egitea hobekuntzak eta akatsak ikusteko eta lortutako emaitzekin hausnarketa sakon bat egiteko.

Laguía eta Vidalek esaten dute ebaluazioa aldatzen dela txoko bakoitzean dauden helburuen arabera; Haur Hezkuntzako ebaluazioan ez da bakarrik arreta jartzen helburuen lorpenean, baizik eta prozesuan ere, hots, helburu horiek nola lortu diren. Autore gehienek proposatzen dute batez ere behaketaren bidez egitea ebaluazioa, tresna horrek jarrerak, detaileak eta zailtasunak erakusten baititu, behaketari argazkiak, notak edo taulak gehituta, ebaluazioa egiteko aukera dago. (Laguía eta Vidal, 2008)

Behaketaren bidezko ebaluazioa egiteko oso beharrezkoa da lehenik eta behin jarraibide batzuk ezartzea, egokiena da behaketa taula bat sortzea zer behatu behar duzun jakiteko eta ume guztiei gauza berdina behatzeko. Behaketa taula horietan, non jarri behar den ikuspuntua argituko dugu, ez baita bakarrik helburua lortu den edo ez ebaluatuko, baizik eta prozesua ere ebaluatuko da, horregatik, behaketa taulan prozesua ebaluatzeko jarraibideak jarri behar dira.

Beraz, ikasgelan egiten diren txokoen ebaluazioa egiteko, beharrezkoa da txokoekin lortu nahi den asmoari buruzko gogoeta batetik abiatzea, eta ikasleen ikaskuntzaz gain, irakaskuntza hobetzea sustatzen duten proposamenak direnez, ekintza metodologiko batetik abiatutako ereduak kontuan hartzen ari dira (Laguía eta Vidal, 2008).

5. Musikaren txokoa

Teoriari dagokionez, musikaren txokoari buruzko informazioa dago (Cáceres, 2010), baina praktikari dagokionez, batez ere Espainian ez dira proiektu asko egin edo behintzat argitaratu eta Euskal Herrian konkretuki, ez dugu musikaren txokoren inguruko proiekturik topatu. Aipatu dugun bezala, musika hezkuntza ez da derrigorrezkoa Haur Hezkuntzako

etapan eta argi ikusten da eskola gehienek musika alde batera uzten dutela eta beste arlo batzuei ematen dietela garrantzia. Musika abestien bidez lantzen dute, baina horrela musika ikasteko tresna moduan erabiltzen da eta ez helburu moduan.

Musikaren txokoei dagokienez, M^a Ángeles Cáceres-ek (2010) esaten du musikaren txokoa sortu eta hornitu behar dela beharrezko material musikal eta ez-musikalarekin, haurrak manipulazioari eta zentzumenei esker musikari buruzko ikaskuntzak eskura ditzan. Halaber, musikaren txokoan burutzen diren jarduerak osagarriak edo berariazkoak izan daitezke.

Silvia Salvador Torres-ek (2014) txokoen inguruko proiektu bat aurrera eramanean zuen Valentzian. Proiektu horretan, txoko ezberdinak ematen dituzten onurak aztertzen zituen eta txoko ezberdinen artean musikaren txokoa sartu zuen. Salvadorrek dio txokoan material ezberdinekin egindako edo erositako musika-tresnak jarri zituela, haurrek era autonomo batean, ezer gidatua egin gabe jolasten zutela eta, haurrek musikaren inguruko jakintza asko eskuratzen zutela, hala nola, erritmoak, soinu ezberdinak eta konposizioak egiteko jakintzak. Halaber, musikarekin lotuta ez dauden beste jakintza batzuk ere eskuratu zituztela dio, alegia, memoria, psikomotrizitatea, adimena eta sormena.

Davinia Velaskok (2014) musikari buruzko proposamen bat egin zuen musikaren txokoan oinarrituta, proposamen hau Valladoliden burutu zuen lau eta bost urteko umeekin. Velaskok jarduera gidatuak egin zituen eta txokoen metodologia erabili zuen, proposamenak metodologiarekin lotura izan zezan, hau da, jarduera horiek burutzen zituen klase orduetan eta gero erabilitako material hori musikaren txokoan uzten zuen. Erabili zituen materialak ez ziren bakarrik musika-tresnak izan, baizik eta batez ere, tresna ez musikalak izan ziren, hau da, puzzleak, ipuinak, piktogramak, abestiak. Lortu zituen emaitzei dagokienez, musikaren arlo teorikoari gehienbat hurbiltzen dira, hots, haurrek musika-tresnen familia ezberdinak ezagutzen zituzten, abestiak ikasi zituzten, soinuaren ezaugarriak ezberdintzen zituzten.

Oro har, Espainian burutu diren musikaren txokoari buruzko proiektuak, oso ezberdinak izan dira; proiektu batzuetan, bakarrik jarduera gidatuak egin dituzte eta gero erabilitako material hori txokoan utzi dute, beste batzuetan, ordea, bakarrik txokoa hornitu dute eta materiala era autonomo batean erabiltzen utzi diete umeei.

II. Haur Hezkuntzako Musika-hezkuntzarako programazio didaktikoa

1. Haur Hezkuntzako Musika-hezkuntzarako programazioaren justifikazioa

Betidanik interes handi bat izan dut musikan, hasteko, nire bizitzan musika oso presente egon delako txikitatik. Musika-eskola batera joan naiz hiru urte nituenetik eta nire familian musikak garrantzia handia izan du beti. Bigarrenik, urteetan zehar, ikusi dut musikak ekartzen dituen onurak gure garapen integralean; jaio aurretik, entzumena gartzen den lehenengo organoa da, beraz, jaio aurretik entzuteko gaitasuna daukagu; zahartu arte, nahiz eta entzumena galdu inguruan dagoena sentitzeko gaitasun mantentzen du pultsua eta bibrazioei esker.

Nire esperientziari dagokionez, beti hobeto ikasi dut musikaz lagunduta, hau da, emozioak adierazteko edo memorizatzeke abestiak sortuz, ikasi behar zen guztia erritmo bat jarrita errezago zela iruditzen zitzaidan. Horregatik, betidanik nire buruan egon da musikari esker eskuratzen diren gaitasunak mahai gainean jartzea.

Gaur egungo gizartean musikak duen garrantzia oso txikia da, gehienetan bigarren mailako irakasgai moduan ikusten da ikastetxean eta eskolaz kanpoko ekintzei dagokienez, denbora galtze moduan ikusten dute gehienek. Halaber, legediari eta curriculumari erreparatuz, gizarteak duen pentsamendua indartzen da, hots, musika bigarren edo hirugarren maila batean geratzen da. Ez dira kontuan hartzen musikari esker eskuratzen diren gaitasunak eta musikak umeentzat dituen onurak, ez bakarrik musikaren arloan, baizik eta ikaskuntza prozesuko beste gaitasun asko eskuratzeko. Haur Hezkuntzako etapan, musikaren presentzia dago, baina ez ikasteko eta gaitasunak eskuratzeko arlo gisa, baizik eta tresna gisa. Haur Hezkuntzan musika gehien bat erabiltzen da abestiak lantzeko eta abesti horien bidez, hiztegia lantzeko. Beraz, helburua hiztegia ikastea da eta abestia helburua lortzeko tresna, konturatzen bagara abestiak ikasten hainbat gaitasun eskuratzen dira ez bakarrik hiztegia lantzea, hala nola, erritmoa, memoria, estrukturak.

Atzera begiratzen badugu eta Haur Hezkuntzan erabiltzen den metodologia kontuan hartzen badugu, proiektu gutxi egin dira musika eta txokoak elkartzeko asmoarekin; egin diren proiektuetan ez da metodologia bere osotasunean erabili, hau da, txokoen metodologia jarduera gidatuak eta autonomoak egiteko aukera ematen du, daukan baldintza bakarra sortzen den espazioa beti hornituta egon behar dela eta umeek espazio hori erabiltzeko aukera izan behar dutela. Horretarako, bai jarduera gidatuak, bai jolas librea konbinatu daiteke.

Eskolen errealitatea aztertzean nire hiru praktikaldietan ikusi dut musikaren presentzia oso txikia dela, hiru eskoletan egon naiz bi, hiru eta bost urteko umeekin, bakarrik bost urtekoekin egon nintzenean musika irakasgai moduan zuten, astero bi ordu musika gelara joaten ziren. Beste bi kasuetan, musika bigarren maila batean geratzen zen eta bakarrik abestiak lantzen ziren. Eskola guztietan txokoen metodologia jarraitzen zuten baina musikaren txokoa ez zegoen, lehenetsua ematen baitzieten beste txokoei, hala nola, eraikuntza, sinbolikoa, liburutegia eta plastika. Gainera, musikari buruzko proiektuak edo programazioak eskatzean, eskolan esan zidaten musika klaseak beste irakasgaietan lantzen ziren unitate didaktikoekin elkartzen zituztela, hau da, ez direla egon eta ez daudela programazio zehatzak musika lantzeko, baizik eta beste irakasgaietan lantzen zena musika irakasgaietan lotura egiten dutela, hiztegia edo horrelakoak musikaren bidez lantzeko.

1.1. Ikastetxearen ezaugarriak.

Proiektua Zabalgana eskola publikoan aurrera eramanean dut, Gasteizko auzo berri batean kokatuta dagoen eskolan. Zabalgana eskola D eredu eskola da, beraz, euskara da erabiltzen den hizkuntza hurrekin. Zabalgana eskola laikoa denez, bertaratzen diren familien artean aniztasun handia dago. Auzo berri bat da eta bertan bai euskaldun bai etorkin asko bizi dira, eta eskolara bertaratzen diren umeak euskaldunak zein etorkinak dira. Etorkinen artean, leku askotako familiak daude, afrikarrak, ukrainiarrak, errumaniarrak, arabiarak, latinoamerikarrak, etab. Maila sozioekonomikoari dagokionez, maila erdikoak dela esan dezakegu, Gasteizko auzo berri batean kokatuta baitago eta oso familia ezberdinak etortzen baitira eskola honetara. Nolanahi ere, maila altuko familia bat eta maila oso baxuko beste familia bat egon daitezke, baina, oro har sozioekonomikoki erdiko maila daukate ikastetxeko familiek.

Eskola horretan, Haur Hezkuntzan erabiltzen den metodologia txokoak dira; maila guztietan txoko berdinak edo oso antzekoak daude eta materialak aldatzen dituzte adinaren arabera. Geletan dauden txokoak ondokoak dira: eraikuntzaren txokoa, liburutegiaren edo lasaitasunaren txokoa (adinaren arabera), jolas sinbolikoaren txokoa, plastikaren txokoa, haretokiaren txokoa (bi eta hiru urteko geletan), logika-matematikaren txokoa, psikomotrizitatearen txokoa (bi urteko geletan) eta esperimentazioaren txokoa (lau eta bost urteko geletan). Eskola horretan, musika klaseak lau eta bost urteko geletan ematen dira eta bi eta hiru urteko geletan abestiak lantzen dira klasean.

Nire gela bi urteko gela bat izan da eta bertan sei txoko ezberdin zeuden; (1) Eraikuntzaren txokoa, egurrekin, legoekin eta kotxeekin, (2) Lasaitasunaren txokoa, sofa

batekin eta gai ezberdinetako liburuekin edo beraien argazkiekin egindako liburuekin, (3) Jolas sinbolikorako txokoa, sukaldearekin, mahaiarekin eta panpinekin, (4) Plastikaren txokoa, errotulkiekin, margoekin eta tenperekin, (5) Haretokia, trasbaseak egiteko materialekin eta (6) Psikomotrizitatearen txokoa, saltoak egiteko koltxonetekin eta eskailerekin. Musikaren txokoa, eraikuntza txokoa eta haretokiaren artean kokatu dut, bertan mahai bat baitzegoen erabili gabe eta txokoa mahai horren gainean antolatzea erabaki dut, umeek erraztasunak izan zitzaten musika-tresnak eta jarduerak egiteko orduan.

1.2. Ikastaldearen ezaugarriak.

Nire proiektua burutuko dut bi urteko gela batean, baina Haur Hezkuntza osoan zehar aurrera eraman daitekeen proiektua da, materialak egokituz gero. Proiektua egingo dudan gelan 18 ume daude, zortzi neska eta 10 mutil eta beraien artean, garapenari dagokionez, ezberdintasun handiak daude, hau da, ume batzuek jariakortasunez hitz egiten dute eta beste batzuk, ordea, oraindik lau hitz bakarrik ahoskatzeko gai dira. Horrez gain, behar bereziak dituen haur bat dago, astean hiru egunetan baino ez da klasera joaten eta hezitzaile bat dauka beti aldamenean. Kontuan hartu behar da, ume bakoitzak bere egoera pertsonala daukala eta hori asko nabaritzen da bakoitzaren garapenean. Garapen motorrari dagokionez, oro har, ez dituzte zailtasunak mugitzeko orduan, hau da, ibiltzen, korrika egiten eta salto egiten dute arazorik gabe. Batzuk pixka bat traketsagoak dira, baina gai dira guzti hori egiteko. Bi urteko geletan kontuan hartu behar dugu, ume bakoitzaren jaiotza data, hau da, ez da berdina urtarrilean jaio den ume bat edo abenduan jaio dena, beraien garapena ez da berdina izango ikasturtean zehar eta asko nabaritzen da, batez ere hizkuntzaren eta mugimenduaren arloan.

Umeen interesari dagokienez, musikari buruzko interes handia daukate, egunean zehar askotan eskatzen baitute musika jartzea eta abesten edo dantzatzen hasten baitira. Halaber, ikasgelako sukaldean dauden poteak eta koilarak musika-tresna gisa erabiltzen dituzte batzuetan eta soinuak ateratzen hasten dira. Gelan musikari ematen zaion garrantzia txikia da, abesti batzuk ikasten eta lantzen dituzte baina hiztegia lantzeko helburuarekin, hau da, lantzen den unitate didaktiko bakoitzak hiru edo lau abesti dauzka eta horiek dira gelan lantzen direnak. Askotan, umeek musika entzuteko beharra daukate, bai erlaxatzeko, bai dantzatzeko edo hainbat gauzetarako eta beti abesti berdinak ez izatea eskatzen dute. Haurrek proposatzen dituzten abestiak jartzea asko gustatzen zaie, beti umeentzako abestiak izan behar dira eta edozein hizkuntzatan, era orekatu batean egiten denean.

2. Programazio didaktikoaren helburu orokorra, helburu espezifikoak eta gaitasunak

Proiektuaren helburu orokorra musikaren txoko bat sortzea da, hurrek musikarekin kontaktu zuzena izateko, musikak ekartzen dituen onuretzat gozatzeko eta musika lantzeko Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko bi urteko umeekin.

Bestetik, programazioaren bidez landu nahi diren helburu espezifiko eta gaitasunak lau dira, helburu espezifiko eta gaitasun horiek programazio osorako izango dira, programazioak 20 aste iraungo duelako. Gaitasun eta helburu espezifikoek zer landu nahi dugun eta zertarako landu galderak erantzuten dituzte, hurrenez hurren. Jarraian dauden landu nahi ditugun gaitasunak eta gaitasun bakoitzaren helburu espezifikoak:

- G1.: Hurrek askotariko musika-tresnak erabiltzea eta eurekin esperimentatzea, askotariko abesti eta dantzetan aplikatuz, musikari buruzko jakin-mina landu dezaten.
- G2.: Hurrek musikaren oinarriko kontzeptuak (erritmoak, segidak, soinuaren kontrasteak eta musika-hiztegia) lantzea, musikaren oinarria garatzen has daitezen.
- G3.: Psikomotrizitate fina eta lodia garatzea, musika-praktikaren bidez, gorputzaren kontrola, koordinazioa eta erritmoa hobetu dezaten.
- G4.: Nork bere izaera pertsonala eta taldekoa garatzea, musika entzuten eta egiten, sentimenduak espresatzeko, lotsa galtzeko eta elkarlana sustatzeko.

3. Programazioaren edukiak

Programazioan zehar landuko diren edukiei dagokienez, zazpi eduki ezarri ditugu. Eduki horiek arestiko gaitasunekin erlazionatuta daude, eduki bakoitzaren bukaerako hizkiek adierazten duten bezala.

- Musika-tresnei buruzko ideiak eta beraien adierazpenak: abestiak eta dantzak. (G1)
- Materialekin jolasteko orduan, komunikazioa, harremanak, elkarlana eta lankidetzak. (G4)
- Gorputzaren mugimenduen eta emozioen adierazpenaren autoerregulazioa. (G3)
- Zentzumeneren esplorazioa eta askotariko materialak eta tresnak. (G1, G4)
- Soinu eta kontraste batzuk entzumenaren bidezko bereizketa: zarata-isiltasuna, luzea-laburra, ozena-eztia, etab. (G2)
- Musikaren kontzeptu nagusiak: erritmoak, segidak eta musika-hiztegia. (G2, G3)
- Imitaziozko jolasak eta gorputza adierazpena: musika-tresnen bidezko jolasak, segiden jolasak eta dantzak. (G4)

4. Programazio didaktikoaren zereginak

Proiektua hau txokoen metodologian oinarrituta dago, beraz klasean txoko ezberdinak egongo dira eta horien artean musikaren txokoa sortuko dugu, txokoen metodologiaren arabera, haurrek autonomoki txoko batetik bestera joateko aukera dute eta une-unean nahi duten edo behar duten jolasetara jolasten dute eta musikaren txokora aste osoan zehar libreki joateko aukera dago. Egunaren arabera, denbora zehatz bat dago txokoetan jolasteko, batzuetan 30 minutu izango dira eta beste batzuetan ordu bat edo gehiago, eguneko ordutegiaren arabera. Garrantzitsuena da egunero txokoetan autonomoki jolasteko aukera izango dutela, ume bakoitzak nahi duen txokora hurbilduko dela eta nahi duen denbora egongo dela. Baldintza bakarra da haurrak, jolasa bukatzen duenean, dena txukun utzi behar duela beste txoko batera joan aurretik.

Gure programazio didaktikoan, zeregin askotan musikaren txokoa, sortu, hornitu edo berritu jartzen du. Zeregin horietan, ez dago denbora zehatzik eta bakarrik seinalatzen da astea. Halakoetan, aste osoan zehar burutuko den zeregin bat izango da, hau da, baliabide aldaketa egiten denean aurkezpena 5-10 minutuko gauza izango da baina gero material horiek aste osoan zehar egongo dira musikaren txokoa eta haurrak astean zehar jolasten ibiliko dira. Zehaztuko den denbora bakarra zeregin konkretuetako denbora izango da, hots, egingo diren jarduera osagarrietako denbora.

Proiektua 20 asterako programatuta dago eta, gutxi gorabehera, kurtso osoa iraungo du. Kontuan hartu behar da bi urteko geletan egokitzapena egiten dela lehenengo hilabetean. Horrez gain, gure programazioa beste proiektu edo zereginekin batera egiteko asmoarekin dago eginda. Beraz, aste batean proiektua bertan behera geratzen bada, zeregin bat aste bat baino gehiago luzatzeko aukera dago. Umeen nahietara egokitu ditzakegu erabiltzen diren baliabideak, hau da, aste batean denbora gutxi izan badute txokoetan jolasteko eta ez badituzte baliabide berriak disfrutatu, orduan baliabide horiek beste aste bat erabiltzeko aukera dago eta programazioa aste bat gehiago luzatzen da. Laburbilduz, programazioan jartzen diren denborak molda daitezke, haurren, irakaslearen edo egutegiaren arabera, beti ere ordena mantenduz.

Aipatuko dugu praktikara eraman dugun programazioaren zatia, lau asteko esku-hartzea egin dugu eta bertan txokoaren sorkuntza eta lehenengo baliabideak erabili ditugu, segiden jolasa egin dugu eta puzzle batzuk erabili ditugu. Denbora oso mugatua zenez, zeregin batzuk beste batzuekin elkartu ditugu ikusteko haurren jarrera zeregin horiekin.

4.1. Zereginen antolaketa.

2 Taula. Musikaren txokoaren programazio zereginen antolaketa. Iturria: Egileak egina.

ZEREGINA	DESKRIBAPENA	GAITASUN/ HELBURUAK	BALIABIDEAK	PARTAIDEAK	DENBORA	ESPAZIOA
Txokoa sortu	Musikaren txokoa hurrek sortuko dute, horretarako gelaren espazioa prestatu eta hornituko dute hezitzailearen laguntzarekin. Txokoan jarriko duten materiala aurkeztuko dute korroan, hezitzaileak zer den, zertarako eta nola deitzen den galderak egingo ditu eta hurrek elkarrekin erantzunak emango dituzte.	1	- Marakak (2) - Mikrofonoak (2) - Danborrak (2)	Talde osoa	1.go astea	Ikasgela
Txokora hurbildu	Haur guztiak txokora hurbiltzeko hurren eta hezitzailearen artean musika-tresnak aurrean jarriko dira eta ordenagailuarekin musika jarritz hurrek musika jarraituko dute musika-tresnak erabiliz	1	- Marakak (2) - Mikrofonoak (2) - Danborrak (2) - Ordenagailua	Talde osoa	2. astea	Musikaren txokoa

MUSIKARI BERE ESPAZIOA EMATEN. HAUR HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLORAKO "MUSIKAREN TXOKOA" PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
Ane Ruiz de Azua - Gradu Amaierako Lana

ZEREGINA	DESKRIBAPENA	GAITASUN/ HELBURUAK	BALIABIDEAK	PARTAIDEAK	DENBORA	ESPAZIOA
Txokoa hornitu (1)	Haurrek Material gehiago sartuko dute txokoan eta material hori korroan aurkeztuko dute hezitzailearen laguntzarekin zer, zertarako eta nola deitzen den galdetuz eta haurrek elkarrekin erantzungo dute.	1	<ul style="list-style-type: none"> - Marakak (2) - Mikrofonoak (2) - Danborrak (2) - Euri makilak (2) - Panderetak (2) 	Talde osoa	3. astea	Ikasgela
Segiden jolasa	Piktogramez egindako segidak dituen liburuxka bat sortu dugu, txaloak, isiluneak eta eskuak hanketan agertzen dira segidak sortuz. Umeek segidak jarraitu behar dituzte imitazioa erabiliz. Haurrek piktograma bakoitzaren keinua egingo dute. Lehenengo aldia denez, haurrek hezitzailearen laguntza izango dute eta piktograma bakoitzaren izena esango du haurrek keinua egiteko. Halaber, piktograma errazak erabiliko dira, txaloak eta isiluneak soilik.	2,3	Segiden liburuxka	Talde osoa	4. astea eta 6. astea Astean bitan, 5-10 minutuko sesioak umeen jarrera eta nahien arabera.	Korroa

MUSIKARI BERE ESPAZIOA EMATEN. HAUR HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLORAKO "MUSIKAREN TXOKOA" PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
Ane Ruiz de Azua - Gradu Amaierako Lana

ZEREGINA	DESKRIBAPENA	GAITASUN/ HELBURUAK	BALIABIDEAK	PARTAIDEAK	DENBORA	ESPAZIOA
Txokoa berriztu	Orain arte egon diren material batzuk kenduko dituzte eta material berria sartuko dute. Hezitzailearen laguntzarekin materialen aurkezpena korroan egingo dute, zer, zertarako eta nola deitzen den galdetuz eta haurren artean erantzunez.	1,4	- Danborrak (2) - Euri makilak (2) - Mikrofonoak (2) - Xilofonoa (1)	Talde osoa	5. astea	Ikasgela eta musikaren txokoa
Musika-tresnak osatzen	Lau piezetako bi puzzle hartuko dituzte, puzzle bakoitzak musika tresna bat izango da, gitarra eta bateria. Korroan eserita musika tresnaren izena eta forma aztertuko dute eta jarraian, hezitzailearen laguntzarekin, puzzleak egingo dira 4 edo 5 aldiz	1,2	- Gitarra puzzlea - Bateria puzzlea	Talde erdia	7. astea eta 9. astea	Ikasgela

MUSIKARI BERE ESPAZIOA EMATEN. HAUR HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLORAKO "MUSIKAREN TXOKOA" PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
Ane Ruiz de Azua - Gradu Amaierako Lana

ZEREGINA	DESKRIBAPENA	GAITASUN/ HELBURUAK	BALIABIDEAK	PARTAIDEAK	DENBORA	ESPAZIOA
Txokoa hornitu (2)	Material gehiago sartuko dute txokoan eta material hori korroan hezitzailearen laguntzarekin aurkeztuko da zer, zertarako eta nola deitzen den galdetuz eta haurren artean erantzunez.	1,4	- Danborrak (2) - Mikrofonoak (2) - Xilofonoa (1) - Panderetak (2)	Talde osoa	8. astea	Ikasgela eta Musikaren txokoa
Musika-tresnak sortu	Etiket material birziklatua ekarriko dute, ur botila txiki bat hain zuzen ere. Ur botilari lekak botako diete erdi beteta egon arte eta haur bakoitzak bere ur botila apainduko du nahi duen modura; horrela, marakak eginda egongo dira.	3,4	- Ur botilak - Lekak (dilistak, arroza...) - Errotuladoreak - Tenperak - Koloretako paperak	Talde erdia	10. astea	Ikasgela eta plastikaren txokoa
Txokoa hornitu (3)	Material gehiago sartuko dute txokoan eta material hori korroan aurkeztuko da hezitzailearen laguntzarekin zer, zertarako eta nola deitzen den galdetuz eta haurren artean erantzunez.	1,4	- Panderetak (2) - Marakak (2) - Danborrak (2) - Xilofonoa (1)	Talde osoa	11. astea	Ikasgela eta musikaren txokoa

MUSIKARI BERE ESPAZIOA EMATEN. HAUR HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLORAKO "MUSIKAREN TXOKOA" PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
Ane Ruiz de Azua - Gradu Amaierako Lana

ZEREGINA	DESKRIBAPENA	GAITASUN/ HELBURUAK	BALIABIDEAK	PARTAIDEAK	DENBORA	ESPAZIOA
Musika tresna gehiago osatzen	Lau eta sei piezetako bi puzzle aterako dituzte, puzzle bakoitzak musika tresna bat izango da, saxofoia eta pianoa. Korroan eserita musika tresnaren izena eta forma aztertuko da eta jarraian hezitzailearen laguntzarekin puzzleak egingo dira lau edo bost aldiz	1,2	- Saxofoiaren puzzlea - Pianoaren puzzlea	Talde erdia	12. astea eta 14. astea	Ikasgela
Txokoa berritu	Orain arte egon diren material guztiak kendu eta material berriak sartuko dituzte; material bakoitza aurkeztu hezitzailearen laguntzarekin zer, zertarako eta nola deitzen den galdetuz eta haurren artean erantzungo dute.	1,4	- Triangeluak (3) - Klabeak (2) - Kutxa txinatarra (2) - Kriskitinak (3)	Talde osoa	13. astea	Ikasgela eta Musikaren txokoa

MUSIKARI BERE ESPAZIOA EMATEN. HAUR HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLORAKO "MUSIKAREN TXOKOA" PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
Ane Ruiz de Azua - Gradu Amaierako Lana

ZEREGINA	DESKRIBAPENA	GAITASUN/ HELBURUAK	BALIABIDEAK	PARTAIDEAK	DENBORA	ESPAZIOA
Segiden jolasa	<p>Piktogramez egindako segidak dituen liburuxka bat sortu dugu, txaloak, isiluneak eta eskuak hanketan agertzen dira segidak sortuz. Umeek segidak jarraitu behar dituzte imitazioa erabiliz.</p> <p>Hurrek piktograma bakoitzaren keinua egingo dute. Lehenengo aldia denez, hurrek hezitzailearen laguntza izango dute eta piktograma bakoitzaren izena esango du hurrek keinua egiteko. Halakoan, txaloak, isiluneak eta eskuak hanketan agertuko dira.</p>	2,3	- Segiden liburuxka	Talde osoa	15. astea eta 17. astea Astean bitan, 5-10 minutuko sesioak umeen jarrera eta nahien arabera.	Ikasgela
Txokoa hornitu	Material gehiago sartuko dute txokoan eta material hori korroan aurkeztuko da hezitzailearen laguntzarekin zer, zertarako eta nola deitzen den galdetuz eta haurren artean erantzungo dute.	1,4	- Triangeluak (3) - Kutxa txinatarrak (2) - Bongoak (2) - Kanpaitxoak (4)	Talde osoa	16. astea	Ikasgela eta musikaren txokoa

MUSIKARI BERE ESPAZIOA EMATEN. HAUR HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLORAKO "MUSIKAREN TXOKOA" PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
Ane Ruiz de Azua - Gradu Amaierako Lana

ZEREGINA	DESKRIBAPENA	GAITASUN/ HELBURUAK	BALIABIDEAK	PARTAIDEAK	DENBORA	ESPAZIOA
Instrumentuak osatzen	Lau eta sei piezetako hiru puzzle aterako dituzte, puzzle bakoitzak musika tresna bat izango da, pandereta, biolina eta trompeta. Korroan eserita musika tresnaren izena eta forma aztertuko da eta jarraian hezitzailearen laguntzarekin puzzleak egingo dira 4 edo 5 aldiz	1,2	- Panderetaren puzzlea - Biolinaren puzzlea - Tronpetaren puzzlea	Talde osoa	18. astea	Ikasgela
Materiala gehitu	Orain arte erabilitako puzzleak txokora gehituko dituzte eta hurrek eskura izateko.	1,2,4	- Triangeluak (3) - Kutxa txinatarrak (2) - Bongoak (2) - Kanpaitxoak (4) - Puzzleak	Talde osoa	19. astea	Musikaren txokoa
Segiden liburuxka txokoan sartu	Orain arte erabili den segidak lantzeko liburuxka Musikaren txokoan utziko dute hurrek autonomoki erabiltzeko.	1,2,3,4	- Segiden liburuxka	Talde osoa	20. astea	Musikaren txokoa

4.2. Programazio didaktikoaren baliabideak.

Proiektua musika espazio bat sortzean datza, horretarako, gelako zati bat hartuko dugu eta txoko bat sortuko dugu. Mahai baten gainean sortzea musikaren txokoa erabaki dugu, instrumentuak jotzerako orduan erosoak izan dadin. Mahaia paretaren kontra dago kokatuta eta pareta apaintzeko musikarekin erlazionatutako marrazki batzuk jarriko ditugu (ikus 1 irudia). Oso garrantzitsua da sortzen dugun espazioa deigarria izatea, umeen arreta pizteko eta kontuan hartu behar dugu bi urteko umeentzat izango dela, hau da, praktikoa izan behar dela eta umeek beraiek bakarrik jaso behar dutela. Musika-tresnak batzeko eta txokoa txukuna egoteko, kutxa txikiak erabiltzea oso aukera ona izan daiteke.



1 irudia. Musikaren espazioa. Iturria: egileak egina.

Musikaren txokoa erabiliko diren baliabideei erreparatu, batzuk sortuak egongo dira eta beste batzuk, berriz, erosiak. Sortuko ditugun baliabideen artean, honako hauek egongo dira: marakak (ikus 2 irudia), bi iragazkiekin eta barruan txitxirioak sartuz.



2 irudia. Marakak. Iturria: egileak egina.

Mikrofonoak (ikus 3 irudia), egurrezko makilak tenperekin apainduz eta euri makilan (ikus 4 irudia), kartoizko tutuak barrutik zotzekin eta barruan makarroiak, dilistak eta txitxirioak sartuz.



3 irudia. Mikrofonoak. Iturria: egileak egina



4 irudia. Euri makilak. Iturria: egileak egina.

Puzzleak (ikus 5 irudia), musika tresna ezberdinen argazkiekin kartoia erabiliz, puzzleak erosteko aukera dago baina musika tresna zehatzak aurkitzea zaila izan daiteke. Segiden liburuxka (ikus 6 irudia), piktogramez egindako liburuxka da, segidak sortuko ditugu piktograma ezberdinekin eta liburuxka txiki bat egingo dugu, segidak gero eta konplexuagoak izango dira, hau da, errazenetatik zailenetara joango dira, liburuxkan dauden piktogramak txaloak, isiluneak eta eskuak hanketan izango dira.



5 irudia. Puzzleak. Iturria: egileak egina.




6 irudia. Segiden liburuxka. Iturria: egileak egina.

Erosiko ditugun materialei dagokienez, danborrak (ikusi 7 irudia), xilofonoak (ikusi 8 irudia), panderetak (ikusi 9 irudia), triangeluak, bongoak, kutxa txinatarrak, kanpaitxoak, klabeak eta kriskitinak izango dira. Baliabide horiek erostea gomendatzen da, batez ere sortzen duten soinua oso bereizgarria delako eta behar diren materialak garestiak direlako.



7 irudia. Danborrak. Iturria: egileak egina.



8 irudia. Xilofonoa. Iturria: egileak egina.



9 irudia. Panderetak. Iturria: egileak egina.

Kontuan hartu behar da bai sortzen ditugun baliabideak, bai erosten ditugunak kalitatezkoak izan behar direla, hots, nahiz eta merkeagoa izan musika-tresnak sortzea, sortzen direnak kalitatezkoak izan behar dira eta egiten duten soinua benetako tresnen antzeko soinua izan behar dute. Musika-tresna guztiak haurrentzat izan behar dira, hau da, haurren adinetara egokitu behar dira, beraien segurtasuna lehentasuna izan behar delako. Horrez gain, haurrek esploratu behar dituzte baliabideak eta haiekin jolastu, beraz, musika-tresnak apurtu daitezke edozein momentutan.

5. Programazioaren Ebaluazioa

5.1. Ebaluazio Irizpideak.

Proiektuaren ebaluazio irizpideek proposamena egitean jarritako helburuak eta gaitasunak hurrek eskuratu dituzten eta zein neurritan eskuratu dituzten ikusteko balio dute. Ebaluazio irizpide bakoitza gaitasun eta helburu espezifiko batekin lotuta dago, G letraz jarraian adierazten den moduan:

- Haurrak askotariko musika-tresnak egokitasunez, erabiltzen eta eurekin esperimendatzeko du, eta askotariko abesti eta dantzetan aplikatzen ditu, eta musikari buruzko jakin-mina landu dute. (G1).
- Haurrak musikaren oinarrizko kontzeptuak (erritmoak, segidak, soinuaren kontrasteak eta musika-hiztegia) landu eta ulertu ditu eta musikaren oinarria garatzen hasi da. (G2).
- Haurrak psikomotrizitate fina eta lodia garatu ditu, musika-praktikaren bidez, eta gorputzaren kontrola, koordinazioa eta erritmoa landu eta hobetu ditu. (G3).
- Haurrak bere izaera pertsonala eta taldekoa sortu eta garatu ditu, musika entzuten eta egiten, sentimenduak espresatzen ditu, lotsa galdu du eta elkarlanean besteekin aritu da. (G4).

5.2. Ebaluazio Adierazleak.

Ebaluazio adierazleek ebaluazio irizpideen lorpen mailaren alderdi zehatzak adierazten dituzte. Jarraian arriko ditugu ebaluazio irizpide bakoitzean erabiliko ditugun ebaluazio adierazleak (3 taula):

3 Taula. Poiektuan erabilitako ebaluazio adierazleak eta irizpideak. Iturria: Egileak egina, Eusko Jaurlaritzaren (2020) arabera.

Ebaluazio Irizpideak	Ebaluazio Adierazleak
Haurrak askotariko musika-tresnak, egokitasunez, erabiltzen eta eurekin esperimendatzeko ditu, eta askotariko abesti eta dantzetan aplikatzen ditu, eta musikari buruzko jakin-mina landu dute.	<ul style="list-style-type: none"> - Musikaren txokora hurbiltzen da. - Arreta mantentzen du jardueretan. - Jarduerak errepikatzea eskatzen du. - Musikari buruzko interesa dauka - Irudimena erabiltzen du musikarekin.
Haurrak musikaren oinarrizko kontzeptuak (erritmoak, segidak,	<ul style="list-style-type: none"> - Musika tresnen izenak erabiltzen edo ezagutzen ditu.

Ebaluazio Irizpideak	Ebaluazio Adierazleak
soinuaren kontrasteak eta musika-hiztegia) landu eta ulertu ditu, musikaren oinarria garatzen hasi da.	<ul style="list-style-type: none"> - Gai da erritmoak egiteko. - Segidak jarraitzen ditu - Altu/baxu terminoak ulertzen ditu.
Haurrak psikomotrizitate fina eta lodia garatu ditu, musika-praktikaren bidez, gorputzaren kontrola, koordinazioa eta erritmoa landu eta hobetu du.	<ul style="list-style-type: none"> - Musika-tresnak jotzen ditu. - Musika tresna txikiak erabiltzen ditu. - Materiala era egokian hartzen du. - keinuak era koordinatuan egiten ditu (txaloak, isiluneak...). - Puzzleak egiten ditu (bakarrik edo laguntzarekin).
Haurrak bere izaera pertsonala eta taldekoa sortu eta garatu ditu, musika entzuten eta egiten, sentimenduak espresatzen ditu, lotsa galdu du eta elkarlanean besteekin aritu da.	<ul style="list-style-type: none"> - Laguntza eskatzen eta eskaintzen du. - Besteen aurrean lotsa erakusten du. - Musika tresnen bidez edo abestien bidez sentimenduak adierazten ditu. - Besteekin jolasteko jarrera irekia erakusten du. - Autonomoki mugitzen da txokoan zehar.

5.3. Ebaluaziorako tresnak.

Haur Hezkuntzako lehen zikloan gehien erabiltzen den ebaluazio tresna behaketa da eta horretarako behaketa taulak erabiltzen dira normalean. Bi eta hiru urterekin oraindik zailtasunak daude kasu batzuetan elkarrizketak edo ebidentzia materialak egiteko, hau da, lanak. Horregatik, gehien erabiltzen dena behaketa da.

Proiektuaren ebaluazioa egiteko, bi tresna ezberdinak erabiliko ditugu batez ere, behaketa taulak eta egunerokoa. Behaketa taulei dagokienez, haur guztientzat berdina den taula bat sortuko da (1 eranskina), eta taula bakoitzean umearen izen abizenak jarriko ditugu eta taula beteko dugu. Taularen beheko aldean, lerro batzuk zuriz egongo dira, umearen arabera, *item* gehiago gehitzeko behar izatekotan. Taulak hilabeteetan behin beteko dira eta horrela haurraren garapena ikusiko da proiektua bukatzean. Behaketa tauletan, ebaluazio adierazleak agertuko dira eta hezitzaileak maiztasuna markatuko du lau aukera izango ditu beti, askotan, noizbait eta inoiz ez. Gainera, *item* bakoitzean oharrak jartzeko lekua dago zerbait argitu behar bada edo azalpenak emateko. Taula betetzerakoan *item* bat ez badugu antzeman, i ez da bete behar, hots, betetzen diren *item*-ak segurtasunez bete behar dira

haurren garapen erreala ikusteko. Gerta daiteke haur bati zeregin batek atentzioa ez ematea eta orduan zeregin horri dagokion *item* hori ez da bete behar.

Egunerokoari erreparatuz, hezitzaileak egunean zehar musikaren txokoa zerbait deigarria ikusten duenean apuntatuko du, hala nola, ohikoa ez den harreman bat, norbait lehenengo aldiz txokora hurbiltzea, edota lehenengo aldiz baliabide bat erabiltzea. Egunerokoan gertaera esanguratsuak agertuko dira. Beraz, ez da beharrezkoa egunero idaztea, bakarrik atentzio ematen duen zerbait gertatzen denean.

Horrez gain, elkarrizketak egingo dira hurrekin, kontuan izanda bakoitzaren garapen maila, hau da, gerta daiteke gelako %70 ez egotea prest elkarrizketak egiteko hizkuntza mailagatik edo garapen mailagatik. Elkarrizketa horretan umeari zeregina gustatu zaion edo ez galdetuko zaio eta bere erantzunen arabera elkarrizketak jarraituko du, zer den gehien gustatu zaiona edo gutxien galdetuz. Halaber, oso garrantzitsua da umeei entzutea, askotan beraiek bakarrik iruzkinak egiten dituzte eta hori entzutea oso esanguratsua izan daiteke ebaluaziorako; etxean kontaktzen dutena kontuan hartu behar da ere, askotan umeek es dute ezer esaten irakaslearen aurrean baina etxean egin dutena kontaktzen dute, gurasoekin harreman estua izatea oso gomendagarria da ebaluazioa egitean.

Haur Hezkuntzan, eta batez ere lehenengo zikloan, garrantzia handia ematen zaio prozesuari eta ez bakarrik lorpenari, horregatik ebaluazioa egiteko kontuan hartuko ditugu erabili ditugun tresna guztiak. Alde batetik, hilabetero bete ditugun behaketa taulak eta egunerokoan jaso ditugun gertaerak eta beste alde batetik, ahozko hizkuntza bai elkarrizketen bidez edo entzumenaren bidez jasotako informazioak. Guzti hori aztertuko dugu eta ebaluazioa egingo dugu.

6. Esku-hartzearen emaitzak

Haur Hezkuntzako ikasgelan, esku-hartze baten bidez, gure programazio didaktikoaren atal bat inplementatu ahal izan dugu. Burutu dugun esku-hartzea lau astekoa izan da, zereginen taularen lehenengo sei zereginak burutuz, zeregin batzuk era sinpleago batean edo zeregin batzuk nahastuta. Jarraian, esku-hartze hori garatu ondorengo emaitzak aurkezten ditugu. Gaitasunei begira, emaitzak lortu eta zein neurritan lortu diren aztertuko da jarraian.

Lehendabizi, proiektua burutzean, hurrek eskuratzea nahi genituen gaitasunak eta helburuak gogoratuko ditugu; lehenengoa, hurrek askotariko musika-tresnak erabiltzea eta eurekin esperimentatzea, askotariko abesti eta dantzetan aplikatuz, musikari buruzko

jakin-mina landu dezaten. Bigarrena, hurrek musikaren oinarrizko kontzeptuak (erritmoak, segidak, soinuaren kontrasteak eta musika-hiztegia) lantzea, musikaren oinarria garatzen hasi dezaten; hirugarrena, psikomotrizitate fina eta lodia garatzea, musika-praktikaren bidez, gorputzaren kontrola, koordinazioa eta erritmoa hobetu dezaten. Laugarrena eta azkena, nor bere izaera pertsonala eta taldekoa garatzea, musika entzuten eta egiten, sentimenduak espresatzeko, lotsa galtzeko eta elkarlana sustatzeko. Hartu ditugun helburu eta gaitasunak oro har, egokiak izan dira proiektua burutzeko orduan, bai umeen adinari dagokienez, bai egindako jardueri dagokienez.

Jarraian, helburu eta gaitasun bakoitzaren emaitzen azterketa egingo dugu. Lehenengo helburuari dagokionez, emaitza nahiko onak jaso ditugula esan dezakegu, behaketa taulei erreparatuz, %85-ek, hots, ia ume gehienek musikari buruzko jakin-mina landu dutela, abestiak eta dantzak izan dira gehien disfrutatu dutena. Egunerokoan idatzita daukagu nola hasieran bi ume ez ziren inoiz musikaren txokora hurbiltzen baina pixkanaka beste umeen laguntzarekin ume horiek hurbildu dira eta esperimendatzen hasi dute.

Bigarrenik, musikaren oinarrizko kontzeptuak lantzea, musikaren oinarria garatzen hasteko, helburu eta gaitasun honetan emaitza ezberdinak jaso ditugu. Behaketa tauletan ikus dezakegu alde batetik, helburu eta gaitasun hori hasieratik eskuratu eta barneratu dituzten haurrak daudela, sei ume hain zuzen ere; beste aldetik, esku-hartzea bukatu eta gero oraindik helburua eta gaitasuna eskuratu ez dituzten bost haur eta geratzen diren zazpi haurrak esku-hartzean zehar helburu eta gaitasuna eskuratu dutenak. Gaitasun hori eskuratu dutela ikusten dugu batez ere, behaketa taulan agertzen diren *item* batzuetan, hala nola, "altu/baxu terminoak ulertzen ditu, erritmoak egiten ditu eta segidak jarraitzen ditu." Egunerokoan ikus dezakegu helburua eta gaitasuna lortu ez dituzten haurrak ez zutela interesik zeregin horietan, oraindik beste garapen maila batean zeudelako, ikasgelako lau edo bost ume helburu eta gaitasun hau lantzeko jarduerak egitean, ez zeuden arreta mantentzen eta beste gauza batzuk egiten edo ezer egin gabe geratzen ziren.

Hirugarren helburu eta gaitasunari erreparatuz, lortu diren emaitzak nahiko onak izan dira, gelako %80-k helburua eta gaitasuna lortu dutela esan dezakegu. Esku-hartzea hasi baino lehen betetako behaketa tauletan ikusten da nola zazpi edo zortzi ume zailtasunak edo traketsak zirela psikomotrizitatearekin, baina esku-hartzea bukatu eta gero egindako behaketa taulan ikusten da nola hasieran zeukaten psikomotrizitate maila esku-hartzea bukatzerakoan baina askoz txikiagoa zela, hots, bukatzean psikomotrizitatea landu eta hobetu dutela ikusi da. Egunerokoan, bi umeen prozesua ikusten da, nola hasieran oso era trakets batean

erabiltzen zituzten musika-tresnak eta pixkanaka pixkanaka segurtasun eta abilezia gehiagorekin erabiltzen zituzten. Lehenengo umeak xilofonoa jotzeko makiltxoak esku bete hartzen zuen eta ez zuen lekurik uzten makila xilofonoa ukitzeko eta eskuarekin ematen zion, pixkanka makiltxoak hatzamarrekin hartzen zuen eta xilofonoa jotzen hasi zen. Bigarren umeak, euri makilak erditik hartzen zituen eta puntetatik hartzeko esatean erortzen zitzaion, baina denborarekin puntetatik erori gabe lortu zuen.

Azkenik, bakoitzaren izaera pertsonala garatu, musikari esker sentimenduak era erraz batean adieraz daitezke eta hori argi ikusi da umeekin. Nahiz eta oraindik hitz egiteko gaitasuna ez izan guztiz garatuta, musikari esker nola sentitzen diren erakutsi dute, behaketa tauletan ikusten dugu nola %75-ek musikari esker sentimenduak espresatu dituztela, bai abestien bidez edo musika-tresnen bidez. Egunerokoan ikusten dugu, nola ume gehienak pozik zeudenean abesten egoten ziren eta triste zeudenean, berriz, abestiak tonu baxu batean eta gogorik gabe abesten zituztela. Ume baten kasuan oso nabaria zen, eskolara pozik etortzen zenean beti ozenki abesten sartzen zen klasera eta triste etortzen zenean oso baxu abesten zuen. Horrez gain, behaketa tauletan ikusten dugu nola ia ume guztiek elkarlanean aritu direla zereginak burutzeko orduan, %90 elkarlanarekin erlazionatutako *item*-a beti maiztasunarekin bete baitute; eta haien arteko komunikazio indartu dela; egunerokoan dago apuntatuta lotsa gehiago zituzten ume batzuek besteei esker lotsa galdu dutela eta elkarrekin zereginak burutu dituztela.

Gainera, gaitasunei dagokienez, proiektua egin aurretik aurreikusiak ez zeuden gaitasun batzuk eskuratu direla ikusi dugu. Ideiak sortu eta adierazi, autonomia lantzea, txandak errespetatzea eta itxarotea, besteen lanak ikusteko eta entzuteko jarrera izatea, gauzak antzematea, etab.

7. Esku-hartzearen emaitzen eztabaida

Atal honetan praktikara eraman dudako programazioaren zatian jasotako emaitzak azaldu eta aztertuko ditugu eta horrekin batera proiektua burutzean izandako pertzepzioak. Hasi baino lehen, aipatuko dugu praktikara eraman dudako programazioaren zatia, lau asteko esku-hartzea izan dela eta bertan, txokoaren sorkuntza eta lehenengo baliabideak erabili ez ezik, segiden jolasa eta puzzle batzuk ere erabili ditugula. Denbora oso mugatua zenez, zeregin batzuk beste batzuekin elkartu ditugu, ikusteko haurren jarrera zeregin horiekin.

Lehendabizi, umeen erantzuna espero nuena baino askoz hobea izan dela esan behar dugu, izugarri disfrutatu dute espazioa eta jarrera irekia izan dute jarduerak egiterako

orduan. Lehenengo egunetik, ume batzuk hurbildu ziren eta ezer galdetu gabe hasi ziren danborrak eta marakak jotzen, puzzleak egiten, etab.

Haur bakoitzaren bi behaketa taula bete izan ditugu; lehenengoa bigarren astean eta bigarrena laugarren astean, horrela umeen garapena ikusteko aukera izan dugu. Atzemandako garapenari erreparatuz, haur gehienengan garapen nahiko handia argi ikusi da. Lehenengo behaketa taulan, 18 umetatik zortzi ume hurbiltzen ziren musikaren txokora eta bigarren behaketa taulan, ordea, guztiak hurbiltzen ziren. Autonomiaren atalean, zailtasun gehiago egon dira, ume asko oraindik ez direlako gai bakarrik jolasteko eta irakaslearen edo beste gelakoen figura behar dutelako ondoan. Kontuan hartu behar da gelan garapen oso ezberdinak dituzten haurrak daudela eta asko nabaritzen dela arlo batzuetan. Ildo beretik, puzzleak egiteko *item*-ean, emaitza ezberdin asko egon dira, haur batzuek hasieratik bakarrik egiten zituzten puzzleak, beste batzuk denborarekin bakarrik egiten hasi ziren eta beste batzuek, berriz, ezin zuten bakarrik egin edota ez ziren ezta hurbiltzen puzzleak egiteko. Segiden liburuxkarekin emaitza izugarriak jaso ditugu, lehenengo momentutik umeen arreta piztu baitzuen eta gogo handiekin parte hartzen zuten jolasean. Lehenengo aldietan oso era gidatuan egiten genuen jolasa, baina gero hurrek bakarrik jolastea eskatzen zuten eta liburuxka txokoan utzi nahi zuten beraien artean jolastu ahal izateko. Oro har, behaketa tauletan ikusi da haurren garapena esanguratsua izan dela, nahiz eta atal batzuetan beste batzuetan baino handiagoa izan den eta, ume batzuegan garapen azkarragoa egon den, beste haur batzuegan baino. Gainera, kontuan hartu behar dugu lau asteko esku-hartzea egin dugula.

Egunerokoari erreparatuz, hainbat gertaera esanguratsu idatzi ditugu ume batzuei dagokienez, hala nola, lehenengo aldia musikaren txokora bakarrik hurbiltzea, lehenengo aldia musika-tresnak erabiltzea, musikaren txokoan jolasten egondako denbora, etab. Egunerokoari esker atera dezakegun emaitza da haur bakoitzak bere erritmoa daukala, batzuk hasieratik hurbiltzen dira eta baliabide guztiak erabiltzen dituzte, beste batzuk, ordea, pixkanaka joaten dira eta aste bat egoten dira baliabide guztiak erabiltzeko. Horrez gain, baliabide ezberdinen erabilera eta denbora apuntatu dugu, hau da, zein da gehien erabiltzen duten baliabidea. Oro har, gehien erabili izan duten baliabidea mikrofonoa izan da, mikrofonoa hartu eta abestiak abesten hasi dira ia egunero.

Ahoz jasotako informazioei dagokienez, nahiko aberasgarriak eta onak izan dira; zereginak egin eta gero edota egunean zehar, txokoari buruzko galderei hurrek emandako erantzunak onak izan dira, hots, nola sentitu diren zereginarekin, beraien gustukoa izan den

edo ez eta ondo pasatzen ari diren edo ez galdetu diegu eta oro har, baietz esan dute gehienek. Ume batzuekin elkarrizketa sakonagoak izan ditugu, hala nola, zein den gehien gustatu zaien baliabidea, zein gutxien eta nola sentitu diren. Bestalde, haurren sarreretan eta irteeretan, gurasoen *feedback*-a ikaragarria izan dugu, hau da, txokoari buruzko galderak egin dizkidate, zer dagoen txokoan eta nongoak diren musika-tresnak, eta umeek txokoari buruz etxean hitz egiten dutela eta oso pozik daudela orokorrean adierazi digute. Familia batzuk, baliabideak egiteko prest zeudela esan didate edota eskuz egindako musika-tresnak nola egiten diren galdetu etxean egiteko. Gurasoen parte-hartze hori oso aberasgarria izan da, bai proiektua ondo joaten ari zela ikusteko, bai nire lana baliagarria izan dela balioztatzeko.

8. Ondorioak

Gradu Amaierako Lan honen helburuen lorpen mailari erreparatuz, oro har lorpen maila esanguratsua izan dela esango genuke. Proiektuak helburu orokor bat dauka eta lau gaitasun eta lau helburu espezifiko, bakoitza zenbait zereginen bidez lantzen dena. Horrek helburuen lorpen altua ahalbidetzen du. Hau da, helburu bakoitzarekin zeregin bakar bat jartzen denean, helburuak bete gabe geratzeko arrisku handi izan daiteke, haur batzuek zeregin hori betetzen ez badute. Helburu bat hainbat zereginetan erabiltzen denean, ordea, ziurtatzen dugu haurrak aldi batean edo bestean beteko duela. Programazioan ikusten den moduan, helburuak errepikatzen dira askotan eta horrez gain zeregin batzuk behin baino gehiagotan egiten dira.

Bestalde, nahiz eta, oro har, helburu orokorraren lorpen maila nahiko ona izan, helburu espezifiko bakoitzak lorpen maila ezberdina izan du. Lehenengoa eta laugarrena (G1, G4) lorpen maila altua izan dute, bigarrenak (G2) lorpen maila nahikoa izan du eta hirugarrenak (G3) lorpen maila nahiko altua izan du. Kontuan hartu behar dugu haur bakoitzak bere egoera izango duela, hau da, haur batzuek helburu batzuen lorpen maila altua izango dute eta beste helburu batzuen, berriz, baxuagoa eta alderantziz. Jarri ditugun gaitasun eta helburu espezifiko guztietan ikusi dugunez, ez dira maila berdinean bete, haur bakoitza ezberdina delako eta dituen beharrak ezberdinak direlako. Haur batzuek gauza berriak ikusteko eta lantzeko beharra daukate eta beste batzuek, ordea, oraindik segurtasunaren beharra daukate eta gauza berriak lantzeari edo frogatzeari beldurra diete. Horregatik, egiten dugu ume bakoitzaren ebaluazio, baina gero emaitza guztiekin esku-hartzearen ebaluazio global bat egin dezakegu.

Programazioaren helburuei dagokienez, alde batetik, musikarekin esplizituki zerikusia zuten helburuak egon dira, hau da, musikaren jankinmina eta interesa piztu eta garatzeko eta, beste aldetik, bai psikomotrizitatea bai izaera pertsonala garatzeko helburuak ere daude. Bi urteko geletan, hurrek psikomotrizitatearen eta izaera pertsonalaren garapena izateko beharra dute, eta horregatik, proiektu honek izan duen helburuen lorpena oso nabaria izan da alde horretan. Psikomotrizitate finaren lanketa oso garrantzitsua da eta normalean Arte Plastikoen bidez lantzen da, baina musikaren bidez landu daitekeela erakutsi dugu proiektu honetan. Horrez gain, izaera pertsonala lantzeko aukera oso interesgarria izan da, hurrek lotsa galdu baitute mikrofonoari esker, eta nork bere sentimenduak adierazteko aukera izan du musika-tresnak era autonomo batean.

Praktikan jarri dudana atalari dagokionez, oro har nahiko emaitza onak izan ditugu helburuei dagokienez; hurrek musikarekiko interesa erakutsi dute eta musikaz disfrutatu dute. Musikaren kontzeptuei erreparatu, ez ditugu emaitza handirik izan, landu dugun zatiarekin bakarrik ez delako nahikoa izan, baina bai ikusi dugu haur batzuk kontzeptua ikasten hasi direla eta proiektuaren jarraipenarekin helburua lortuko zela uste dugu. Psikomotrizitatearen aldetik, aldaketa handiak ikusi ditugu batez ere haur batzuegan. Hasiera batean, musika-tresnak hartzeko zailtasunak zituzten eta praktikarekin garapen handia sumatu dugu eta gero, garapen hori egunerokotasunean nabaritu da. Izaera pertsonalari dagokionez, emaitza oso ezberdinak izan ditugu hurren eta egunaren arabera, alde batetik, egun batetik bestera lotsa eta jarrera aldatu dituzten umeak egon dira, hots, mikrofonoa hartu eta lotsa guztiz galdu dutenak eta, beste aldetik, asteetan zehar lotsa eta jarrera aldatu duten hurrek ere azaldu dira.

9. Mugak eta hobekuntza proposamenak

Proiektuan zehar izandako mugak, egindako aldaketak eta haien zergatia aztertuko ditugu, kontuan hartuz lau asteko esku-hartzea izan dela eta zeregin batzuk beste zereginekin nahastuta egon direla. Bi taldeetan sailkatuko ditugu aldaketak, alde batetik, proiektuaren formari dagozkionak eta beste aldetik, materialei dagozkienak. Hasteko, proiektuaren formari dagozkion aldaketak aztertuko ditugu, denborari dagokionez, aldaketa batzuk egin ditugu, hasieran espazioan materialak astean bitan sartzeari pentsatuta geneukan, denbora oso murriztuta zelako esku-hartzea burutzeko; baina ikusita ume batzuei kostatzen zitzaizela espaziora hurbiltzea segurtasun faltagatik, ikusi genuen hobeto zela materialak astero sartzeari. Horrela, astean zehar denbora gehiago zeukaten guztiek materialekin esperimentatzeko eta umeek behar zuten espazioaren egonkortasun hori lortzen genuela. Horrez gain, puzzleekin aldaketa batzuk egin genituen ere, hasieran

puzzleak mahai gainean utzi nituen eta korroan bakarrik landu genuen zer zen puzzlean zegoen argazkia, baina konturatu nintzen batzuentzat zailegiak zirela eta era gidatu batean egin behar zirela, hau da, beraiekin puzzlea egiten egon umeek behar zuten laguntza eskainiz. Laguntza hori lau edo bost alditan eman eta gero, gehienak gai ziren bakarrik egiteko. Proiektuaren formaren aldaketekin bukatzeko, segiden liburuxkarekin aldaketa batzuk egin ditugu proiektuan zehar, jarduera hau pentsatuta geneukan bakarrik korroan egiteko eta era oso gidatu batean, hasieran ikusi genuen zailtasunak zituztela segidak jarraitzeko eta orduan liburuxka irakaslearen armairuan gordetzen genuen, baina geroago umeek liburuxka eskatzen zutela ikusita, eta gai zirela beraiek bakarrik erabiltzeko, erabaki genuen musika espazioan uztea beraien eskura egoteko.

Materialen aldaketei dagokienez, bi arazo ikusi ditugu eta kontuan hartzekoak direla uste dugu; lehenengoa maraken materiala da, marakak iragazkiekin eginda daude, baina ez metalezko iragazkiak baizik eta plastikozkoak, hau da, bigunak dira. Umeek sakatzen zuten alde biguna eta marakak egiten zuen soinua txikiagoa zen txitxirioak ez zutelako lekurik mugitzeko. Beraz, hurrengo baterako, beste material bat erabiltzea hobe dela ikusten dugu, batez ere, maraken esentzia ez galtzeko. Arazo hori konpontzeko, korroan eserita azaldu genien alde biguna ez zela sakatu behar, bestela marakak ez baitzuten soinua ateratzen; egia esanda, gehienek ulertu zuten eta sakatzeari utzi zioten. Bigarrena, danborren baketak dira, erosi genituen danborrak ez zeuzkaten baketarik orduan egurrezko makilatxo batzuk erosi genituen, baina gure ustez luzeegiak ziren eta umeek zailtasunak zituzten ondo hartzerako orduan. Arazoa konpontzeko, makilak erditik zatitu genituen eta horrela txikiagoak ziren eta umeek erosoago ibiltzen ziren haiekin jolasten.

Hobekuntza proposamenari dagokionez, kontuan izan behar dugu ez dugula programazio didaktiko osoa praktikara eramanez, beraz, hobekuntza proposamenak etorkizunerako musika-hezkuntza kudeatzeko hobekuntzak izango dira. Hasteko, proiektua burutu eta gero, konturatu behar gara nola dagoen musika-hezkuntza gaur egun, musikaren garrantzia oso handia da bizitza osoan zehar, baina Haur Hezkuntzako etapan ezinbestekoa izan behar du. Oso material didaktiko gutxi daude musikarekin erlazionatuta eta are gutxiago soilik musika lantzen dituztenak.

Proposamena da, proiektu honetan egin diren zeregin batzuetatik material didaktikoak sortzea etorkizunean eskoletan erabiltzeko aukera izateko. Segiden liburuxka oso material interesgarria eta esanguratsua izan da programazio didaktikoan. Umeek asko ikasi dute eta haien zentzuan oso dibertigarria izan da. Gainera, material horrek ez du zertan

proiektu honekin lotuta egon. Haur Hezkuntzako etapa guztietan erabili daitekeen materiala da, eta adinaren arabera aldaketa batzuk egin daitezke zailtasun mailetara egokitzeko. Halaber, material didaktiko horrekin helburu eta eduki asko lantzeko aukera dago eta haurrak disfrutatzen duten zeregina da.

Oso beharrezkoa da guztion artean material didaktikoa sortzea eta elkarbanatzea, musikaren papera beharrezkoa baita eskoletan eta oso material gutxi eta zaharkitua dago eta horrek musikaren papera gero eta txikiagoa izatera eramaten du. Musikaren txokoa eskoletan erabiltzea gomendatzen dudana txokoa da, irakasle bakoitzak bere modura moldatuz zereginak eta materialak.

Erreferentziak

- Heziberri (2016ko urtarrilaren 15eko 237/2015 Dekretua), Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkaria.
- Akoschky, J., Alsina, P., Díaz, M. eta Giraldez, A. (2009). *La música en la escuela infantil (0-6)*. Editorial GRAÓ.
- Bernal, J. (2005). Apuntes para una nueva educación musical en la escuela. *Publicaciones*, 35(7), 61-73
- Cáceres, M.A. (2010). Aprendemos con la música. *Temas para la educación, (8) or. gabe*.
<https://www.feandalucia.ccoo.es/docu/p5sd7232.pdf>
- Calvo, M. L. eta Bernal, J. (2000). La expresión musical en el currículum de educación infantil. *Eufonía: didáctica de la música*, (14), 9-23.
- SEM-EE (2017). *La Educación Musical en España: Triste realidad y esperanza para el cambio*. Vernia Carrasco, A. M.
<https://www.isme.org/sites/default/files/documents/Report%20from%20SEM-EE.August2017.Spanish%20original.pdf>
- Cremades, R., García-Gil, D., Lizaso, B., Morales, Á., Del Olmo, M.J., Román, M., Susaeta, I eta Toboso, S. (2017). *Desarrollo de la Expresión musical en Educación Infantil*. Paraninfo.
- De Pablo, P. eta Trueba, B. (1994): Espacios y recursos para ti, para mí, para todos. Diseñar ambientes de educación infantil. Escuela Española.
- Gutiérrez Corredor, A. B. (2010). La música. Una canción en educación Infantil. *Innovación y experiencias educativas*, (36), or. gabe.
https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_36/ANA_BRIGIDA_GUTIERREZ_CORREDOR_01.pdf
- Laguía, M.J eta Vidal, C. (2008). *Rincones de la actividad en la escuela infantil: 0-6 años*. Graó.
- Pascual, P (2006). Didáctica de la música para educación infantil. Didáctica de la música. Pearson educación, S. A.
- Pérez Villalba, A. (2020). *Proyecto de innovación. Área de música. 3º de Educación Infantil*. (GrALa argitaratu gabea). Comillaseko Pontifize-Unibertsitatea, Madril.
- Piatek, A. I. (2009). El trabajo por rincones en el aula de Educación Infantil. Ventajas del trabajo por rincones. Tipos de rincones. *Innovación y experiencias educativas*, (15), 1-8.

95/2022 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, Haur Hezkuntzaren antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituen. («BOE» 28.zenb., 2022ko otsailaren 02koa).

Rodríguez Torres, J. (2011). Los rincones de trabajo en el desarrollo de competencias básicas. *Docentes e investigación*, (21), 105-130.

Salvador Torres, S. (2015). *El trabajo por rincones en educación infantil*. (GrALa argitaratu gabea). Jaume I unibertsitatea, Valentzia.

Velasco Matarranz, D. (2014). *La consideración de educar musicalmente. Una propuesta de intervención educativa a través del rincón musical en el aula infantil*. (GrALa argitaratu gabea). Valladolideko unibertsitatea, Valladolid.

Eranskinak

1. Eranskina. Behaketa taula.

BEHAKETA TAULA

IZEN-ABIZENAK					
MAIZTASUNA	BETI	IA BETI	NOIZBAIT	INOIZ EZ	OHARRAK
Txokora bakarrik hurbiltzen da					
Txokora beste umekin hurbiltzen da					
Autonomoki jolasten du					
Material ezberdinak erabiltzen ditu					
Laguntza eskatzen dio irakasleari					
Laguntza eskatzen die beste umeei					
Materiala behar den bezala erabiltzen du					
Besteei laguntzeko interesa erakusten du					
Erritmoak egiten ditu					
Segidak jarraitzen ditu					
Altu/baxu terminoak ulertzen ditu					
Gorputza kontrolatzen du					
Puzzleak egiteko laguntza eskatzen du					
4 piezetako puzzleak egiten ditu bakarrik					
6 piezetako puzzleak egiten ditu bakarrik					
Piktogramak eta keinuak lotzen					

MUSIKARI BERE ESPAZIOA EMATEN. HAUR HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLORAKO "MUSIKAREN
TXOKOA" PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
Ane Ruiz de Azua - Gradu Amaierako Lana

ditu					
Jarduerak egitea eskatzen du					
Musikaren inguruko interesa erakusten du					
Sentimenduak espresatzen ditu musikarekin					
Musika-tresnak erabiltzerakoan lotsa dauka bestean aurrean egitea					